

Kanpaina bat abiatu da etxeen izenak agertzeko 2000. urteko telefono gidan

France Telecom, EKE eta Herrien Arteko Elkargoa bildu dira ekimena burutzeko

Lutxi Fourcade / Baiona

Arazo tekniko bati aurre egiteko, Ipar Euskal Herriko etxeen izenak desagertu ziren Pirinio Atlantikoe-tako departamenduko telefono gidatik egun batetik bestera. France Telecom, EKE eta Herrien Arteko Elkargoa bildu dira etxeen izenak berriro sarrarazteko 2000. urtean agertzeko den gidan.

SOROSPEN taldeei lana errazteko asmoz, France Telecom taldeak Ipar Euskal Herriko etxeen izenak desagertarazi zituen telefono gidetatik duela hiruzpalau urte. Izan ere, *Numeru* izeneko operazioa kari, biztanleen izenak eta telefono zenbakiak agertzeaz gain, France Telecom taldeak toki berezi bat atxiki zuen etxeen kokapen zehatza agertzeko. Xehetasun horiek beharrezkotzat jo zituen suhiltzaileen edo jendarmen lana errazteko besteak beste.

Euskal etxeen izena desagertzeak haserre gorria piztu zuen Euskal Herriko txoko ainitzetan, eta orain France Telecom taldeak, Euskal Kulturaren Aldeko Herrien Elkargoak eta Euskal Kultur Erakundeak (EKE) bat egin dute hutsune hori zuzentzeko. «Etxearen izenak garrantzi handia du betidanik Euskal Herrian. Izen arrunta baino gehiago, nortasunaren eta oroimenaren zaintzeko ikurra da, eta funtsezkoa da ize-



BOB EDMÉ

Kanpaina aurkezteko atzo Baionan egin prentsaurrekoa.

nak aurkitzea telefono gidan», adierazi zuen Jean Grenetek, Herrien Elkargoko zuzendariak. Horrengatik, Herriko Etxeen laguntzarekin, ekimen bat elkarrekin abiatu dute telefonoko harpidedunek aukera ukan dezaten beren etxearen izena ezartzeko 2000. urteko gidan edo urtekarian.

Sei hilabeteko kanpaina

Bi ekimen berezi bultzatuko dira datozen hilabeteetan. Le-

hendabizi, kanpaina bat eginen da herriko izen guztiak bi hizkuntzetan sartzeko. «Gaur egun, 47 udalen izenak euskaraz eta frantsesez agertzen dira. Gidaren hurrengo edizioan 120 bat izen izanen dira, baina dei egiten diegu beste Herriko Etxe guztiei galda dezaten euskarazko izenak agertzeko gidan», azpimarratu zuen Pantxoa Etxegoinek, EKEko zuzendariak.

Bestalde, herriko etxeen laguntzarekin, France Telecom taldeak aukera emanen du etxeen izenak agertzeko

2000. urteko gidan. Etxearen izena sartu nahi duten guztiek bete beharko dute Udalean aurkituko duten erantzun orria. Ondotik, Herriko Etxeak itzuliko dizkio France Telecom taldeari. Harpidedunen helbidearen aldaketak beharala egingen dira Interneteko telefono gidan eta ondoko urteko paperezko gidan. «Sei hilabeteko epea finkatuko dugu erantzunak jasotzeko, eta dei bat egiten dugu ahal diren izen guztiak berriro sartzeko gidan», gaineratu zuen Etxegoinek.

Euskara batua indartzeko euskalkiek duten garrantzia aztergai 'Ele' aldizkarian

■ Aldizkariaren 19. zenbakia plazaratu du AEK-k

Erredakzioa / Bilbo

AEK Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundeak argitaratzen duen *Ele* aldizkariaren 19. zenbakia kalean da dagoeneko. Euskara batua indartzeko euskalkiek duten garrantzia jorratzen dute hainbat adituk ale berri horretan. Bi artikulutan jorratzen da gaia: *Euskalkien erreferentzia ikasprozesuan* (A.M. Basabe, G. Ikobaltzeta, F. Ruiz) eta *Baturako Mendebaldeko euskararen ekarria* (Gontzal Lopez).

Era berean, euskal azentua aztertzen du *Ele* aldizkariaren ale berriak. I. Gaminde, L. Arenaza, I. Martin eta G. Lopezek idatzi dute gai horri buruzko artikulua, *Euskal azentuaren pertzepzioa irakasleen artean* izenburukoa; ikasgeletan azentua zelan landu behar den aztertzen dute.

Bi gai horietaz gain, kurrikulu berria, murgiltze sistema irakaskuntzan, motibazioa, Paulo Freiren ekarria euskal alfabetatzean eta ikasleei egiten zaien harreraren inguruko hausnarketa ere aztergai dira azken alean.

Ele adizkariak helduen euskalduntze-alfabetatzean duen garrantzia nabarmendu zuten AEK-ko ordezkariak aurkezpenean.

Euskararen erabilera sustatzeko lankidetzaren programa sinatu dute Realak eta Udalak

■ Bazkide eta bezeroen hizkuntz eskubideak errespetatzea da akordioaren xedea

I. Petxarroman / Donostia

REALAK eta Donostiako Euskararen Udal Patronatuak euskararen erabilera sustatzeko lankidetzaren programa sinatu zuten atzo. Akordioa urtebeterako izango da oraingoz, eta bere helburua da «euskara present izatea klubaren eguneroko bizitzan», Luis Uranga Realeko lehen-dakariak azaldu zuenez.

Urangaren hitzetan, Realak borondate argia du euskara normalizatzeko arlo guztietan, eta atzokoa aurre-

ra egindako beste urrats bat dela gaineratu zuen.

Horren aurretik beste pauso batzuk eman izan dituela gogoratu zuen, eta haien artean *Bai Euskarari* akordio soziala sinatu izana nabarmendu zuen.

Beatriz Otaegi Euskararen Patronatuko lehendakariak «pozgarritzat» jo zuen hitzarmena, eta ziurtatu zuen udalak bere lantaldea jarriko duela Realaren esku euskararen erabilera bultzatzeko ahaleginean.

Otaegik azaldu zuenez,

Realak baliabideak jarriko ditu, eta Udalak bitarteko teknikoak. Ildo horretan, Udalak lau konpromiso hartu dituela esan zuen: plangintza bat taxutzea, hizkuntz aholkularitza ematea, itzulpen lana egitea eta euskara klaseak ematea.

Plangintza egin aurretik, udaleko teknikariak azterketa bat egingo dute euskarak dituen behar eta premia nagusiak aztertzeko.

Otaegik gogoratu zuen plangintzaren helburua realzaleen hizkuntz eskubideak



PABLO S. QUIZA

Beatriz Otaegi eta Luis Uranga, atzoko prentsaurrekoan.

bermatzea dela, eta horretarako hainbat lan egingo direla: errotuluak, txartelak, irudiak euskaraz ere ipini; langileen hizkuntz eskakizun-

nak ele bietan jarri; kanpoko dokumentazioa ere erdaraz eta euskaraz jarri; leihatiletan euskara erabiltzea bultzatu...